

## 6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezero berriak erakartzeko modu bat publizitatearen bidez izan daiteke. Horretarako, Aterkin-marmoka sare-sozialen bidez ezaguna egitea pentsatu dugu, gaur egun pertsona gehienentzat eskuragarriak direlako. Errealitate bat da haur txikienak ere mugikor bat dutela eskuetan maiz, gehienetan bideoak ikusteko eta entretenitzeko modu eroso bat delako. Horregatik, egoera honetaz baliatuko gara eta publiko gaztearentzat edukia egiten duten influencer-ekin kolaborazioak egingo ditugu. Beste marketing estrategia bat, ohiko bezeroei deskontuak egitea da eta hauei arreta bikaina eskaintzea, noski. Horretarako, posta elektronikoa bat eta telefono-zenbaki bat erabiliko ditugu, gure bezeroek beren arazoak eta galderak azal diezazkiguten. Gainera, produktu hau berria denez eta honen monopolioa dugunez, jendearentzat erakargarria izango da eta ziurrenik aukera bat emango diote Aterkin-marmokari.